

astejorran

• PERNANDO BARRENA •

[HERRI BATASUNeko MAHAI NAZIONALEKO KIDEA]

1999ko bilan gazi-gozoa

Gazi-gozoa diot bai, 1999 honetan nahikotxo aurreratu arren lan handia egiteke dugula agerian dagoelako. Euskal Herriko gizartearen ilusioak eta itxaropenak Lizarrako eragileen lanean izan dute islarik garbiena; baita ekaineko hauteskundeetan Euskal Herriarrok-ek jaso zuen uzta oparoan zein aro modernoaren lehenengo instituzio nazionala den Udalbiltzan edota presoen eskubideen alde sortu zen Batera plataforman.

Hala ere, ETak eskainitako sуетen-ekimena ausartaz gain, 1999ak Sanz eta Aznar gobernuen urduria, itxikeria eta inobilismoa izan ditu ezaugarri, hala nola gobernu frantziarrak espainiarraren estrategia errepresiboan laguntzeko erakutsi duen grina. Estrategia errepresibo hori aski ezaguna da Nafarroan.

Inbestidura akordioaren ondoren —hobe litzateke *legealdi akordioa* esatea—, UPNren esanetara dagoen talde gisa agertu zaigu PSN. UPNrekiko menpeko jarrera honek eskubizaleak eta nafarren interesen kontrakoak diren aurrekontu orokorrak bultzatzea eraman du PSN. Alderdi horrek jan egin ditu bere programan agertu zen eduki aurrerakoia; langabezia edota bazterketaren kontrako neurri eraginkorrik ez, hirigintza arloko politika espekulatzailak sustatu, edota euskarari eten gabeko erasoa.

Ekaineko hauteskundeetan PSNren gai izarra izan zen A-15aren doakotasuna paper bustian geratu da; EH baztertu egin du aurrezki kutxen bateratze prozesutik eta hori guztia UPNrekiko

akordioa betearren. Horrekin batera, Nafarroaren interesen defentsan bi alderdi hauek erakutsitako jarrera lotsagarria izan da. Alderdi biok behin eta berriro umiliatu egin dira estatu-arrazoiaren aurrean, Nafarroako Parlamentuan onartutako legeei Madrilek jarritako helegiteak onartuz eta inposaketaren berma gisa jokatuz.

Agerian gelditu da behin baino gehiagotan bozkaterik izan ez genuen Foruaren Hobekuntzaren ondorioz nafarrok pairatzen dugun subirautea eza. Hobekuntza inposatutako markoa da eta Euskal Estatutuaren eredu zatikatzailaren osagarri gisa agertzen zaigu.

Transizio-egoera honen aurrean, azpimarratzekoa da Euskal Herriari benetako marko demokratikoa eskaini ahal izateko Ezker Abertzaleak behin eta berriro azaldu duen konpromisoa. Hala ere, sуетenaren 14 hilabete igaro ondoren, gobernu espainiar eta frantziarraren itxikeria errepresiboak gatazka politikoa areagotuta, ETaren meiniaren amaiera ekarri du.

Testuinguru honetan, Euskal Herriarrok-en *Euskal Demokrazia osatzeko oinarri eta garatzebideak* izeneko proposamenak abiapuntua markatu egin du datorkigun eszenatoki politikoa definitzeko orduan. Historian lehenengo aldiz, nafarrok aukera izanzen dugu Euskal Herriaren herri gisako osaketa politikoa parte hartzeko; proposamen horren bidez, herri libreen modura Europan bete zuen papera berreskuratzera deituta dago Nafarroa. Ez gara inposatutako estatu biren periferia, gurea eta propioa denaren bihotza baizik.

• RAMON ETXEZARRETA •

[PSE-EEKO ZINEGOTZIA DONOSTIAKO UDALLEAN]

Horrela ote?...

Kontsigna eta lelo jakin zaharren eta lehia politikoa marketing soil bihurtzeko munduaren baitan logikarik baldin badu ere, ulerterrazegia konponbidea hori izateko, batek ez ditu oso ondo ulertzen aditu eta politika komentatzaile argi eta zentzudun ugarik azken boladan Alderdi Sozialistari egiten dizkieten interpelazioak.

Aparteko aukera omen du, diotenez, PSOEk (PSE-EE nekez hartzen da aintzat) prozesua deitzen diogun nahaspilo politikoa honetan. Ez dago dudarik hala dioenak arrazoi duela hori esatean. Prediku politikoa oro inoiz baino maximalistagoa den garai hauean aparteko eskerrez jasoko litzuke herritarrek ekimen politikoa errealagoak eta irudimen gehiagokoak. Egoera honetan ausardia ez da eromena, beharrezko birtute bat baizik. Zentzu honetan aukeraren apartekotasuna guztientzat da eta ez sozialistontzat bakarrik, nahiz eta oraingoz ia alderdi hau bakarria den eskuak libre dituen gobernu ardurarik gabe bizi den neurrian.

Ez da txarra inoren balio politikoa-erentzat interlokutore egokitzen joa izatea, interlokutorerik egokiena kontsideratu ahal izatea. Baina hori

esatean ez dakit esan nahi den plan teamendu guztiei men egin behar dien bakarria hura dela, hura aukeratu dutelako hori dioteneke, edo agian prozesu orotan guztiek egin beharreko kontzesioetan hari egingo lizkioketela kontzesioak (orain arte ezagutzen ez direnak).

Dena den, garbi dago begiak PSOERI begira jarrita daudela. Arzallus eta Almunien arteko elkarrizketa gertatu zenetik nabarmenak izan dira jarrera aldaketak, gutxi aldatu dira baina nabarmen. PP eta PSOE elkarrengandik urrutiratzen ari dira bake gaitan, indarkeriak elkarrengana hurbiltzera behartzen baldin baditu ere. PNV eta PSOEk tratu publiko leunagoa dute garai batetik hona. Indarkeriazaleak berriz nazionalista ez den oro berdintzeko saio etengabea darrai

nahiz eta azken boladan, eta sekretuan, datozen hauteskundeak PSOEk irabaztea desio omen duen.

Ez dakit honek logikarik duen, ezta hemen logika zeri deitzen zaion ere, baina *logika irlandarra* edo antzekoa dei diezaiokegun zerbait badu. Majorren jarrera, Blairren garaipena, Stormont... sekuentziak marraztuta daude. Ez zait gaizki iruditzen baldin eta *logika militar irlandarra* abian jartzen ez bada eta dinamita kaxak urez blai eginda uzten ez badituzte.

PP eta PSOE
elkarrengandik
urrutiratzen ari
dira bake gaitan,
indarkeriak
elkarrengana
hurbiltzera
behartzen baldin
baditu ere

gogoratuz

• JOXAN ELOSEGI •

• Duela 476 urte

Eguberri

1523ko abenduaren 25ean jakinarazi zuen Karlos enperadoreak hamar egun lehenago sinatua zuen dekretu garrantzitsu bat: barkatu egiten zien damutuei, Nafarroako erresumaren alde borrokatu ondoren, asto beltzarenak eta bost ikusi ondoan, bera jaun eta jabe aitortu zutenei. Damutuak, bai, Jaungoiko ahalguztiduna eta ni neu larriki iraindu dutelako, beren sorterrria, gure koroa eta gure errege estatua, Espainiako erreinu guztiak, itsuski laidotu eta kaltetu dituztelako. Barkatu egiten

zien, ez guztiei ordea. Eta dekretu haren segidan zehaztu zuen barkamenez esparru hartatik kanpo gelditu zirenen izen-zerrenda luzea. Ez dago zigorrik gabeko barkamenik.

1512an hasi zen Nafarroako erresuma txikiaren konkista militarra. Egia esan, sortu zenetik bizi izan zen Iruñeko erreinua konkistaren mehatxuarekin eta hordegoka edukitu zuten inguruko errege-estatuek zazpi mendeetan zehar.

Espainiako errege-erregina katolikoen prestatu zuten zorioneko ukal-

dia, Fernando Aragoikoak ez zuen huts egin eta Karlos enperadore espainiar berriak eman zion azkena. 1524ko urtarrilean, kateaturik zeukaten espainiarrek Nafarroa Garaia, baita Garaziko hiria ere, Donibane; haatik, Pirinioen mendebaldeko muturrean, Hondarribiko gazteluaren gailurrean, haizearen mesede hedatzen zen, herabe eta lotsati, Nafarroako ikurra, Lapurdiko eta Bidasoako errekekako lurri beha. Martxoaren 24an apaldu ziren alabaina lili horiak eta, errendizioarekin batean, guz-

tiendako barkamena negoziatu zuten nafarrek eta espainiarrek. Betikoz hautsi zen horrenbestez Nafarroako erreinua. Orduan hasi zen oraina.

1523ko Eguberri jakinarazi zuen Karlos enperadore germaniar espainiarrek zeinen ederra eta dotorea den handia, kristaua eta espainiarra izatea, zeinen ederra eta dotorea den barkatzea, zeinen ederra eta dotorea den egun berriaren iragarle nagusia izatea, horretarako Nafarroako gariak jabetzeko aukerarik ukanen ez zuela esan behar izan bazuen ere.

Eguberri mintzo dira ahaldun kristauak, Jainkoa diren ustetan, eguberri mintzo dira jauntxo espainiarrek eta frantziarrak, ordenu berriak zaharrenean irauingo duela adierazteko, eguberri mintzo da, isilean eta burdinetan, egun berriari so, euskaldun zintzoen baraua, gosea.